

Errukiaren Jubileu Urtea
– Mendekoste –

Errukiak su hartu du

1. Hasiara (Poema)

Garizumako topaketan,
zure sukaldeko sutondoan,
maitasunak erre gintuen
errukizko uholde gozoan.
Emozioaren negarra egin genuen zure
gurutze-gaineko maitasun-erasoan.

Eta gozo gelditu ginen oso
zure besoetan eroso,
etxeak su hartu duen arte baina,
zure suak abian jarri baikaitu.

Pazkoa Mendekoste egin zaigu,
poza, irteteko dei,
maitasuna, pobreekiko kezka,
kontenplazioa, esateko Berri On,
biltzen gintuzten hormak puskatu dira...
Gaur gizartea dugu eliza,
mundu osoa erromes-bide,
pobre oro senide.

Gaur, baina, Jauna, zer esan, nola esan?,
nola adierazi zure Berri Ona?
Maitatu gaituzula esan nahi dugu,
baina ez daukagu hitz egokirik.
Gaitzaren zauria sendatu diguzula nahi dugu esan,
baina gaitzaren zauriak min egiten digu oraindik.
Pobreen alde mintzatu nahi dugu, eta jokatu,
baina ez dugu elkar ulertzen.

Jauna, zure etxeko Pazko-suak erreko ote gaitu?
Mendekosteko Arnasa izango ote dugu arnasa?
Jesusi eragin zion Espirituak
eramango ote gaitu beraren bidetik?
Mendekoste eskatzen dizugu, Jauna,
apaltasunez, beharrez,... negarrez.
Jauna, goza gaitzazu goza dezagun,
maita gaitzazu maita dezagun,
errukitan erre gaitzazu mundua sutu dezagun,
erakutsiezaguzu zure hitza
pobreen hizkera ikas eta esan dezagun.

Jauna, zaude gurekin,
sutan erre eta uretan busti gaitzazu,
maitasunaren sutan, Espirituaren uretan.

(Isilunea utzi eta «Zeru-lurren» abestia... kanta daiteke)

2. Kantua

Zeru-lurren egile zaren
Espiritu Santua,
zatoz eta bete bihotzak,
piztu gugan maite-sua (bitan).

Behartsuen Aita zaitugu,
lanpean atsedena,
nahigabeen gure barrengo
poza sortutzen duena (bitan).

Zentzuari argi eman ez
eta bihotzari su,
Jaun onaren irudi bizi
denok bihurtu gaitzazu (bitan).

Aihenatu gure etsaiak
ta arimako kalteak.
Gugan beti iraun dezala
zuk emandako bakeak (bitan).

Aita eta Semearekin
hirutan bat zarena,
orain hemen zaindu gaitzazu,
gero eraman zerura (bitan).

(Isilunea...)

3. Jainkoaren Hitza


(Genesi liburutik 11)

Garai hartan gizakiek esan zuten: «Ea, eraiki ditzagun hiri bat eta zerurainoko dorre bat. Ospetsu egingo gara eta ez gara munduan zehar barreiatuko». Jaitsi zen Jauna gizasemeak eraikitzen ari ziren hiria eta dorrea ikustera, eta esan zuen: «Hara, guztiak herri bat bera dira, hizkuntza bat berekoak. Hau beren lehenengo lana badute, ez zaie aurrerantzean egin nahiko duten ezer ezinezko gertatuko. Jaitsi eta nahas diezaiegun, bada, hizkuntza, elkar uler ez dezaten». Horregatik, Babel —hau da, «Nahasketa»—, eman zioten izena, han nahasi baitzuen Jaunak mundu osoko hizkuntza eta handik sakabanatu baitzituen mundu zabalera.


(Apostoluen Eginetatik, 2)

Mendekoste-eguna iritsi zenean, toki berean bildurik zeuden guztiak. Bat-batean, haize-boladarena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta beraiek zeuden etxe guztian durundi egin zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk ikusi zituzten, bakoitzaren gainean bana kokatzen. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion eran. Burrunba hura entzutean, hara bildu zen jendea samaldan, eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien.

4. Kantua (errepikatu bost-sei bat aldiz)



Ve - ni, Cre - a - tor Spi - ri - tus. Ve - ni lu - men cor - di - um,
Es - pi - ri - tu sor - tzai - le - a, za - toz gu - re ba - rru - ra



ve - ni, lu - men cor - di - um!
e - ta be - rri gai - tza - zu!

5. Barne-lana galderaz edo aitortzaz

(Isil-une luzeak eta musika suabea tartekatuz)

- Neure barrua nola sentitu eta ikusten dut?
- Nahasketa, iluntasuna, ulertu-ezina... *Babel* al da nire barrua?
- Edo zerbait berria sumatzen hasita al nago, sentidu berri bat?

- Eta neure bizi-ingurura begiratzen badut, zer?
- Bazterrak nahasten ditut ala senditu pozgarria sortzen dut?
- Beharbada, neuk bete nahi izan al dut Jainkoaren lekua eta dena ulergaitz bihurtu zait, dena ilun...

- Sinesten al dut, sinetsi nahi al dut, Jainkoak dena berri, dena desberdin, dena sentidu berri bihur dezakeela?
- Utzi nahi al diot Jaunari nire bizitzan azken hitza?
- Jaunari irekitzen al diot nire errealitatea?

- Mendekosteko Espirituak Jesusen bidez eraman nahi nau...
- Nire bideari eutsi nahi al diot edo irekia al nago?
- Espirituak bota ditzake barrua lotzen didaten hormaitsuak...
- Nire bizitzari maitasunaren sua piztu nahi dio Jaunak bere Espirituaz.

- Baina, maitasunaren su berri hau zertarako da?:
 - ez neure hormen barruan gozo gelditzeko;
 - ikasleak bezala plazara irteteko, maitasuna garaile dela esatera...

- Beharbada, askotan ahaztu egiten dugu geure Bataioa...
- baina Bataioan Espiritu berria eman zitzaigun, bizi-arnasa berria...
- Gaur Bataioko uretan berritu nahi dut nire sinesmen txiki eta apala...

6. Sinbolo edo irudia

(Bataioko ur bedeinkatuz beteriko ontzi batean behatzak busti eta «aitaren» egin).

7. Veni, Sancte Spiritus

VENI, SANCTE SPIRITUS!

Zatoz, bai, Gogo Guren,
eta bidal zerutik zure argi-izpia.

Zatoz, gaixoen Aita, zatoz,
dohain-emale, zatoz, bihotzen argi.

Poz-emale bikaina, etxe-lagun
atsegin, sargorian haize pin.

Lan artean atsedean, nekean
aringarri, malkoetan pozgarri.

Bete, argi dohatsu zintzoen
bihotzeko zirrikurik barnenak.

Zure laguntza gabe ez du gizonak
ezer, ez du ezer on denik.

Garbi zikin dagoena, busti lehor
dagoena, zauriak oro senda.

Zurrun dena bigundu, makur dena
zuzendu, hotz dagoena berotu.

8. Eskerrak ematen

Jauna, utzidazu eskerrak ematen...
Ez dakit zergatik eskerrak eman,
baina sentitu dut badela sua,
barrua berritzen duen maitasun sutsua,
utzidazu eskerrak ematen.

Neure hormen itxituran, tristuran,
barruko kateen loturan,
bizi nahi eta ezin bizi, neure buruari jira eta bira,
lotura ilunen morrontzan, zilborrari begira.

Gaur, baina, Mendekoste egin duzu,
eta askatasuna edaten eman diguzu.
Hitz berria ipini diguzu ahoan,
su berria piztu gogoan.

Erori dira hormak eta mundua dugu etxe,
itxiturak hautsi eta aire berria dugu arnasa,
gizakiak senide ditugu, ez etsai,
zure Berri Ona dugu hitz,
eta zure errukia dena berritzen duen sua.

Jauna utzidazu eskerrak ematen...

9. *Berriro Veni, creator Spiritus kantua*